

Ezarian → Felix-Baltistan Fundazioak 10 urte



Emakume batzuk soroan lanean, atzean mendiak dituztela. FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA

Hamar urte bete ditu Felix-Baltistan Fundazioak. Ibilbide horretan hainbat proiektu garatu ditu Pakistan iparraldeko Hushe eskualdea garatzen laguntzeko. Emakumearen egoera hobetzea dute erronka orain.

Elkartasunaren mendiak

Irene Arrizurieta

Hamar urte dira mendia maite duen laguntalde batek Felix-Baltistan Fundazioa eratu zuenetik. Felix Inurategi mendizalea hil eta hurrengo urtean sortu zuten, haren omenez. Hamar urteko ibilbidean Fundazioak hainbat proiektu garatu ditu Pakistango Hushe haranean, eta, batez ere, Matxulu herrian. Karakorum mendikatean dago Matxulu, Baltistan eskualdean, eta hamalau zortzimilako mendietatik lau lekutzen dira inguru hartan. Mendiak igotzera joaten diren espedizioetako zama-eramaile lanaz gain, nekazaritza eta abeltzaintza dute bizibide herritarrek.

Felix-Baltistan Fundazioaren lana Matxulu herrian hasi zen. 3.000 biztanle inguruko herria da, 3.000 metroan dago. Handik haran osora zabaldu da elkartasun keinua. Hushe haraneko bizilagunen bizitza ez da erraza; klima gogorra dute, eta, orografia zaillagatik, bakartuta bizi dira, herrialde-



Landak ureztatzeko sistema izan da proiektuetako bat. FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA

aren gainerako lekuetatik aparta daudelako. Horretaz gain, oinarriko arlo askotan gabezia handiak dituzte: hezkuntza, osasuna, azpiegiturak eta genero-berdintasunean, esaterako. Hori guztia aintzat hartuta, Felix-Baltistan Fundazioa haraneko biztanleen garapena bultzatzeko proiektuak sustatzen hasi zen.

Bost alor lantzen ditu Fundazioak: hezkuntza, azpiegiturak, osasuna, nekazaritza eta generoa

Fundazioak bost alorretan lan egiten du: azpiegiturak, nekazaritza, hezkuntza, osasuna eta generoa. Hamar urteotan hainbat proiektu jarri dituzte martxan. Atzera begira jarri, eta proiektu horietako bi azpimarratu ditu Txema Kamara Fundazioko koordinatzaileak: mendi eskola eta landak ureztatzeko ur-ponpaketa sistema. Mendi eskolak 70 ikasle izan zituen. Haraneko gizonak goi mendietan zama-eramaile lanak egiteko harkaitzetako eta izo-

zetako eskalada tekniketari trebatu zituzten. Eskolatik pasatara, mendiko garaietan zama-eramaile izateko gaitasuna dutela dioen ziurtagiria eskuratu dute, eta horrek mendi haietara antolatzen diren espedizioetan lana errazago lortzea ahalbidetzen die.

Nekazaritzan hobekuntzak

Landak ureztatzeko Hushe ibaitik ura landetara garraiatzeko egitasmoa errealitate da aspaldian. Mendiko basamortu bat da harana, eta, lurra emankorra den arren, euririk apenas egiten duen udaberrian eta udan. Eta, noski, laboreak ez badira ureztatzen, ez dira hazten. Euri askorik egin ez arren, glaziar asko daude, eta Hushe ibaiak ur nahikoa darama. Horregatik, Hushe ibaitik ura ponpatzea erabakizuten. Ibaitek 250 metrora dagoen biltegi batera ponpatzen da ura. Hala, biltegitik, ubide zaharretan barrena, ura garraiatzen dute. «Lanok oso garrantzitsuak izan dira, nekazarien lana errazteaz gain, horrelako azpiegiturarik ez dagoelako

Ezarian → Felix-Baltistan Fundazioak 10 urte



Matxulun irekitako eskola. FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA



Bi emakume lanean. FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA

Baltistanen. Garia ereiten dute batez ere, eta hura ureztatzeko ez dute apenas uriko», argitu du Kamarak. Eurek eskatutako behar bat zen, eta zazpi urte darama martxan. Horretaz gain, barazkien produktzioa eta fruituen ekoizpena hobetzeko lanean ari dira hango nekazariek. Berotegiak eraiki dituzte eta produktu ezberdinekin esperimintatzen hasiak dira, orain arte ereiten ez zen patatarekin, kasu. Fruituen ekoizpenari dagokionez, albortxioa da nagusi haranean. Produktzioa hobetzeko eta merkaturatzeko lanean ari dira. Fruitua garbitu eta lehertzeko instalazioak jarri dituzte, neguan ere produktu hori jan dezaten, eta hazietatik olio ateratzeko prentsak ere jarriko dituzte.

Emakumea, ezinbestekoa

Husheko biztanleen garapena bultzatzeko hainbat egitasmo gauzatu ditu Fundazioak, baina urteotan oharatu da emakumearen egoera hobetzeak lan berezia eskatzen duela. Hori ahalbidetzeko, emakumeari lotutako proiektuak lantzen hasi dira. «Fundazioak ulertu du biztanleen %50 emakumeak direla baina haiek ez ginela deus egiten ari», azpimarratu du Kamarak. Horretarako, Felix-Baltistan Fundazioak Matxulun sortutakoarekin, Felix Inurrategi Foundation Baltistan Machulu (FIFBM), elkarlan estuan ari da. 2007an Vocational Centre for Women egitasmoa sor-

tu zuten. Hango bi emakume dira erakundeko arduradunak: Kaniz Fatima, FIFBMko koordinatzailea, eta Razia Mehdi gizarte ekin-tzailea. Ordutik 370 emakume hainbat gaitan trebakuntza jaso dute eta oharitzen hasiak dira al-daketaren parte direla.

Ikastaro ugaritan hainbat gai landu dituzte: nola josi eta bordatuak egin, albortxikoen lehorketa prozesua, marmelada edo picke zukua nola egin edota azafraia. Ikastaro horiei esker, dituzten beharrik eta interesak elkar trukatzeko toki bat dute. Gainera, garbitasuna, osasuna eta elikadura hobetzeko tailerrak ere egin dituzte emakumeekin. Hiru gabezia horientatik emakume frankok bizia galtzen baitu erditu eta gero. Ikastaroetan, garbitasunak eta elikadurak osasunean duten garrantziak ohararazi diete.

Haraneke hainbat komunitate-tan emakumeek lan karga handia dute, familiaren ardura eta nekazaritza lanak beren gain daudelako. Halere garapenerako bidean parte hartze handia izan nahi dute. Orain arte ez bezala, komunitateak egiten dituen bileretan parte hartzen hasi dira, eta gizonen aurrean dituzten premiak azaltzen. Aldaketak gutxi-ka egiten ari badira ere, garape-nak ez duela atzera bueltarik uste du Kamarak. «Belaunaldi gazte-ak aldatzen ari dira mundua aldatzen ari delako, eta ez soilik gu hor gauzelako eurekin lanean. Gazte-ak gauzak aldatzeko gogoia dute».

Sarai Martin • Genero arduraduna Felix Baltistan Fundazioan

«Hushen emakumearen errealitatea gogorra da»

I. Arrizurieta

Apirila eta maiatza Pakistan iparaldeko Hushe haranean eta, bereziki, Matxulu herrian eman ditu Sarai Martin Felix-Baltistan Fundazioko (FIBF) genero arduradunak. Hango emakumeen egoera oso gogorra dela dio: eguna lanean ematen dute, ikasteko aukerarik ez dute, gazte ezkontzen dira, eta haurdunaldiaren ondoren, maiz, bizia galtzen dute. Husheko emakumeen egoera hobetzeko hainbat ekimen abiatu ditu Fundazioak. Emakumeek sortu dituzten jarduerak bultzatzeko tenorea iritsi dela dio Martinek. Lanarekin jarraitzeko, irailean itzuliko da berriro Pakistanera.

Zein da emakumeen egoera Hushen?

Emakumearen errealitatea gogorra da. Oztopoz beteriko bizitza daramate, eta ezin dute aurrera egin haien autonomia eta heziketan. Goizeko lauetan altxatu, eta gaueko hamarrak edo hamaikak arte lanean aritzen dira. Amaierarik gabeko atazak dituzte: familiaren zaintza, etxeko lanak (sukalden aritzeko, egur eta ur bila joan behar izaten dute; errekan garbiketarak egiten dituzte; jakiak lortu...) eta landako lanak ere bai. Ordu asko ematen dituzte garia ereiten eta uzta biltzen. Finean, familiak eta nekazaritzako mantentze lanez arduratzen dira. Duten lan kargak ez die beren buruz arduratzeko astirik uzten, eta osasun arazo handiak dituzte. Emakumeek gizonen baino lan karga handiagoa dute. Asko gazte ezkontzen dira eta eskola utzi behar izaten dute. Ama eta emazte lanak egin behar izaten dituzte oraindik oso gazteak badira ere. Ez dute komunitatearen bizitzan parte hartzeko aukerarik ez eta gizonen aukera berdina izateko baliabiderik.

Haranean bizi diren herrietako 31 emakumez osatutako lantaldea sortu da. Zertarako?

Emakumeek duten lan kargaz eta ardurez gain, garapenerako bidea bultzatu nahi dute. Komunitate bakoitzean pisua duten bi-hiru emakume elkar ezagutu dute, eta haien artean harremanetan jarri dira. Amen eta haurren osasuna, emakumeak gaitzeko zentroa, hezkuntza edo garraioa lehen mailako beharrik dira. Helburua giza garapen iraunkorren eredu lortzea da, eta hasieratik emakumeen beharrik eta ikuspuntuak zeintzuk di-



FELIX-BALTISTAN FUNDAZIOA

ren aztertzea. Orain urte batzuk emakumeekin hasitako ekintzak finkatu eta sendotu egin dira, eta forma hartu dute. Esperientzia honekin, haraneke emakumeak herritarrek direla sentitzen hasiak dira, eskubideak dituztela eta ez direla garapeneraren izaki pasiboak. Haraneke komunitate ugarian egin diren bileretan emakumeen parte hartze handia izan da.

«Duten lan kargak ez die beren buruz arduratzeko astirik uzten emakumei»**«Eskola goiz uzten dute, eta horregatik ari gara hezkuntza proiektu bat garatzen»****Behar handiena osasun zerbitzuak hobetzea dela diote emakumeek. Zein da egungo egoera?**

Haranean, emakumeen osasun arazoak ugariak dira: haurdunaldian, erditzean, eta baita ondoren ere. Haurra jaio ostean, emakume asko hil egiten da, burdina faltatzen duelako; baita bestelako gaixotasunen ondorioz ere. Haurdun dauden emakumeak ez dira aintzat hartzen, eta, ondorioz, ni han izan nintzen bitartean bi emakume hil ziren. Erditzeak artatzeko emagin bakarra dute haranean, baina ez du trebakuntzarik. Emakumeek etxean erditzen dute, elkarri lagunduz, eta hori oso arris-

kutsua da. Bestalde, ez dute dieta orekatu bat, eta elikatze arazoak dituzte.

Hezkuntza falta ere aipatzen dute. Zer egiten da analfabetismoa murrizteko?

Matxulu herrian adibidez, lau emakumetik hiru analfabetoak dira, eskolagabeak; gizonen kasuan, berriz, bostetik bi. Askotan, 15 urteko neska gaztetxoak familiak ezkontzen ditu, eta emakume helduen zereginak hartzen dituzte. Eskola uzteak emakume eta ama rola goiz hartzera eramaten ditu. Horregatik aritu gara hezkuntza proiektu bat garatzen. Proiektuaren bidez, neskei ikasteko bekak ematen zaizkie. Egun, beste beka batzuk ere sustatzen ari gara, neskek bigarren hezkuntza edo goi mailako ikasketak egin ditzaten.

Emakumeek nekazaritza eredu berriari sartzeko aukera ere aipatzen da. Zein da eredu hori, eta zergatik egin dute eskaera?

Joan den urtean Women Jam Association sortu zuten, emakumei eta haien familiei diru sarrerak eskaintzeko. Uda honetan marmelada egiten ikasteko eta barazkiak landatzen ikasteko nekazaritza ikastaroak egiten ari dira.

Pakistandik itzuli zarela, zein gogoe-ta egiten duzu han egindako egonaldiaz?

Hango emakumeek gure laguntza behar dute dauden diskriminazio egoeratik irteteko, eta, prozesu horretan aurrera egiteko, Felix-Baltistan Fundazioak bere lanarekin jarraitu behar du.